

## Kutxabankek ‘Taktik’, aurreztea errazten duen funtzionalitate berritzailea, sartu du bere aplikazioan

- Txartelarekin egindako erosketen xehe edo gainerakoak gordetzeko edo norberaren kontu batetik traspaso automatikoak programatzeko aukera ematen du
- Guztiz doakoa da, errentagarritasun gehigarria eskaintzen du eta bere saldoa edozein unetan erabil daiteke

**2024ko ekainaren 2an.** Kutxabanken appak beste funtzionalitate bat du, aurrezpen pertsonala modu erraz eta automatizatuan errazten duena. **Taktik** du izena, eta aurrezteko hainbat estrategia konfiguratzeko aukera ematen du, erabiltzaile bakoitzaren lehentasunen arabera.

Taktika horietako bat da Taktik kontuan aurreztu ahal izatea ordainketa-txartelekin egindako erosketen **xehe edo gainerakoak**, ia oharkabean. Funtzionalitate berri horrek zenbatekoak automatikoki 1, 5 edo 10 eurora biribiltzeko gaitasuna du, eta gainerako kopurua Taktik kontuan bertan gordailutzeko.

Taktik-ek proposatzen duen bigarren aukera **aurreztea programatzea** da Kutxabankeko beste kontu batzuetatik egindako traspaso automatikoen bidez, eta horrela bezeroen aurrezteko jokabidea sustatzen da. Metodo hau aukeratzen duenak traspasoa jatorrizko kontuan gutxieneko zenbateko batera baldintzatu dezake, eta, beraz, uneoro kontrola ditzake bere kontuak.

Kasu guztietan, Taktik erabat **doakoa** da, ez du mantentze-komisorik, Euriborraren % 20ko errentagarritasuna eskaintzen du 3 hilabetera, eta gordetako saldoak **erabilgarri daude edozein unetan**, inolako penalizaziorik gabe. Taktik kontu berria Kutxabanken **banka mugikorraren** bidez aktiba daiteke.

Taktik, Kutxabankeko **bezero gazteentzat** bereziki diseinatuta dagoena, aldatu edo baliogabetu egin daiteke erabiltzaile bakoitzak erabakitzen duenean, eta lortutako aurrezkiek laburpen-paneletik kontrolatzen da.

### Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.